MUSKIZ
UDALA

MUSKIZKO EGOITZA - HIGIEZINETAN IGOGAILUAK JARTZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUPETZEKO ORDENANTZA

1. Artikulua - HELBURUA

Ordenantza honek Muskizko Udalak igogailurik ez duten egoitza-higiezinetan igogailuak jartzeko ematen dituen Dirulaguntzak araupetzea du helburu.

Hirugarrenean edo solairu gehiagotan etxebizitzak dituzten egoitza-higiezin kolektibo guztiek jaso dezakete dirulaguntza.

Igogailu berrien instalazioa ez da inolaz ere diruz lagunduko familia bakarreko, bi familiako edo atxikitako etxebizitzetan, ez eta Antolamenduz kanpoko bezala kalifikatutako eraikinetan ere.

2. Artikulua - DIRULAGUNTZA

Guztizko aurrekontuaren %20ko dirulaguntza emango da fondo galdura; BEZ ez dago barne hartuta.

Jarritako igogailu berriagatik gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da HAMAR MILA ZORTZIREHUN TA HAMAZORTZI EUROTIK gorakoa izan (10.800 Euro).

3. Artikulua - DIRULAGUNTZAREN HELBURU DIREN HIGIEZINEN ANTZINATASUNA

Oro har, 10 urtetik gorakoa izan beharko da dirulaguntzaren helburu diren egoitza-higiezinen antzinatasuna. Bertan mugikortasun urriko bizilagunak, egoeran etxebizitza horretan bizitzen hasi ondoren egonez gero, edo HIRUROGEI URTETIK gorako bizilagunak bizi badira, egoitza-higiezin horiek ez dute baldintza hori bete beharko. Halakorik gertatuz gero, gainerako betekizunak beteta, eraikinaren antzinatasuna kontuan hartu gabe emango dira udaleko dirulaguntzak.

4. ARTIKULUA - FINANTZA BALIABIDEAK

Muskizko Udaleko urteko aurrekontuan jasotakoak izango dira Ordenantza hau ezartzeko aurreikusitako baliabideak. Partida hori agortutakoan, dirulaguntzak eten egingo dira harik eta esleipen berria egin arte.

ORDENANZA REGULADORA DE LAS AYUDAS ECONÓMICAS PARA LA INSTALACIÓN DE ASCENSORES EN INMUEBLES RESIDENCIALES DE MUSKIZ

Artículo 1.- OBJETO

Es objeto de la presente Ordenanza la regulación de las Ayudas Económicas que el Ayuntamiento de Muskiz concede para la nueva instalación de ascensores en inmuebles residenciales que carezcan del mismo.

Todos los inmuebles residenciales colectivos con viviendas en 3ª o más plantas pueden ser objeto de esta ayuda.

En ningún caso se subvencionará la instalación de nuevos ascensores en viviendas unifamiliares, bifamiliares o adosadas, o en edificios calificados como fuera de Ordenación.

Artículo 2.- AYUDA

La ayuda económica consistirá en una subvención a fondo perdido del 20% del presupuesto total, IVA no incluido.

La cuantía máxima de la ayuda por nuevo ascensor instalado, no podrá ser superior a DIEZ MIL OCHOCIENTOS DIECIOCHO EUROS. (10.800 Euros).

Artículo 3.- ANTIGÜEDAD DE LOS INMUEBLES OBJETO DE AYUDA

Con carácter general la antigüedad de los edificios residenciales objeto de ayuda deberá ser superior a 10 años. Quedan exceptuados de esta condición aquellos inmuebles residenciales en que habiten personas de movilidad reducida a quienes les haya sobrevenido esta situación con posterioridad a la ocupación de la vivienda, o habiten personas mayores de SESENTA AÑOS. En estos casos, las ayudas municipales se otorgarán, cumplido el resto de los requisitos, con independencia de la antigüedad del edificio.

Artículo 4.- RECURSOS FINANCIEROS

Los recursos previstos para aplicación de esta Ordenanza serán los que figuren en los presupuestos anuales del Ayuntamiento de Muskiz. Una vez agotada dicha partida, se paralizarán las ayudas hasta nueva consignación.

MUSKIZ
UDALA

5. Artikulua - ONURADUNAK

Igogailurik ez dutela-eta, igogailua jartzen duten Muskizko egoitza-higiezinetako Jabeen Erkidegoak izango dira dirulaguntza honen onuradunak.

Udaleko dirulaguntzak emateko, Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatu beharko dute hartzaileek dirulaguntza jaso aurretik. Horrez gain, jasotako fondoak erabili dituztela egiaztatu beharko dute ondoren.

6. Artikulua - DIRULAGUNTZAK IZAPIDETU

Ordenantza honetan aurreikusitako dirulaguntzak jasotzeko, interesdunek Muskizko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute dagokion eskabidea, aurreikusitako ereduaren arabera, hurrengo artikuluan aipatzen diren agiriekin batera.

Plan honetarako finantza-baliabideak urriak direla kontuan hartuta, honako prozedura hau ezartzen da dirulaguntzak emateko:

1) Eskabidearen eta Ordenantza honen 7. artikuluan zehaztutako agirien aurkezpenarena izango da dirulaguntzak emateko erabakia hartzeko lehentasun-hurrenkera.

2) Hilabete natural berean aurkeztutako eskabide guztiek lehentasun-hurrenkera bera izango dute.

3) Bertan mugikortasun urriko bizilagunak, beti ere Ordenantza honen 1. artikuluan zehaztutako egoeran etxebizitza horretan bizitzen hasi ondoren egonez gero, edo hirurogeita hamar urtetik gorako bizilagunak bizi badira, Erkidego horiei erabateko lehentasuna emango zaie aipatutako aldian aurkeztutakoen artean.

Eraikinean bizi diren 60 urtetik gorakoen kopurua kontuan hartuko da.

Artículo 5.- BENEFICIARIAS

Las beneficiarias de esta ayuda serán las Comunidades de Propietarios de inmuebles residenciales del término municipal de Muskiz que, careciendo de ascensor, instalen éste.

Para la concesión de subvenciones municipales, los perceptores vendrán obligados a acreditar antes de su percepción que se encuentran al corriente de sus obligaciones fiscales con el Ayuntamiento, y a justificar posteriormente la aplicación de los fondos recibidos.

Artículo 6.- TRAMITACIÓN DE LAS AYUDAS

Para acogerse a las ayudas económicas previstas en esta Ordenanza, las personas interesadas deberán presentar en el Registro General del Ayuntamiento de Muskiz la correspondiente solicitud, según el modelo previsto, con la documentación a que se hace referencia en el artículo siguiente.

Teniendo en cuenta la limitación de los recursos financieros destinados al presente plan, se establece el siguiente procedimiento para la concesión de ayudas:

1) El orden de prelación que se seguirá para dictar resolución de concesión de ayudas, será el de presentación de la solicitud y de los documentos pertinentes, reseñados en el artículo 7 de esta Ordenanza.

2) Todas las solicitudes presentadas durante el mismo mes natural, tendrán la misma consideración a efectos de prelación.

3) Las Comunidades en las que habiten personas de movilidad reducida, sobrevenida con posterioridad a la ocupación de la vivienda, definida en el artículo 1 de esta Ordenanza, o personas mayores de setenta años, tendrán prioridad absoluta dentro de las presentadas en el período de tiempo citado.

Se tendrá en cuenta el número de personas mayores de 60 años que habiten en el inmueble.

MUSKIZ
UDALA

7. Artikulua - AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

- ✓ Lan-baimenerako eskabidea.
- ✓ Teknikari eskudunak egindako egitasmoa eta partidatan banatutako aurrekontua.
- ✓ Erkidegoaren Akta, igogailua jarriko dela erabakita eta administratzailea edo presidentea ahaldunduta erkidegoa ordezkatzeko, dagokion dirulaguntza jasotzeko eta horren ordainagiria luzatzeko.
- ✓ Urritasun fisikoaren ziurtagiria, edo gaixotasunak mugikortasuna murrizten diola edo urripen iraunkorra eragiten diola egiaztatzen duen osasun-ziurtagiria, eta gaixotasuna egiaztatzeko asmoz Udalak beharrezkotzat jotzen dituen gainerako agiriak, bai eta adinari buruzko egiaztagiria ere. Bi kasuetan, erroldaketa-ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- ✓ Dirulaguntza eman dela jakinarazten denez geroztik, eta hamabost eguneko epean, igogailua jarriko duenarekin sinatutako lan-kontratua aurkeztuko da.
- ✓ Dirulaguntzen onuradunek diruz lagundutako zenbatekoagatiko gastuaren egiaztagiri original edo fotokopia egiaztatu guztiak aurkeztu beharko dituzte Udaleko Bulego Teknikoan.

Jasotako fondoen erabilera egiaztatu ezean, dirulaguntza emandako ez beste helburu batzuetarako erabiliz gero edo onuradunei ezarritako betebeharrak bete ezean, onuradunek jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituzte, bai eta dirulaguntza ordaindu zen unetik sortutako berandutza-korrituak ere.

Artículo 7.- DOCUMENTACIÓN A APORTAR

Las personas solicitantes deberán aportar los siguientes documentos:

- ✓ Solicitud de licencia de obras.
- ✓ Proyecto formulado por Técnico/a competente y Presupuesto desglosado por partidas.
- ✓ Acta de la Comunidad acordando la instalación del ascensor y facultando al administrador/a o presidente/a para representar a la comunidad, realizar el cobro de la ayuda correspondiente y emitir recibo de la misma.
- ✓ Certificado de minusvalía física, o Certificado médico acreditativo de que la dolencia reduce su movilidad, o le causa una disminución permanentemente, y demás documentación que el Ayuntamiento estime necesaria para la comprobación de su dolencia y justificante relativo a la edad. En ambos casos, se deberá presentar el certificado de empadronamiento.
- ✓ A partir de la comunicación de la concesión de la ayuda, y en el plazo de quince días, se aportará el contrato de obra con el ascensorista.
- ✓ Los beneficiarios de las subvenciones estarán obligados a presentar en la oficina Técnica Municipal, todos los justificantes originales o fotocopias compulsadas del gasto por el importe subvencionado.

En el supuesto de incumplimiento del deber de justificación de la aplicación de los fondos recibidos, de aplicación a finalidades distintas para la que haya sido concedida la subvención o de incumplimiento de las obligaciones impuestas a los beneficiarios, éstos vendrán obligados a reintegrar las cantidades percibidas, con el interés de demora desde el momento del pago de la subvención.

8. Artikulua - DIRULAGUNTZA EMAN ETA ORDAINDU

Honela ordainduko da dirulaguntza, Hirigintza, Lan eta Zerbitzuetako Batzordeak proposatuta eta Alkatetzak ebatzita, ematea erabaki denean:

- ✓ Igogailua jartzeko lanak hasten direnean, %50a.
- ✓ Gainerako %50a, lana amaitu dela adierazten duen ziurtagiria aurkeztu ondoren.

9. Artikulua - INDARREAN SARTU

Ordenantza hau ez da indarrean sartuko harik eta osoko bilkuran berariaz behin betiko onetsi eta aurrekontuko zuzkidura onartu arte.

Artículo 8.- CONCESIÓN Y ABONO DE LA AYUDA

La ayuda se hará efectiva, una vez se haya resuelto su concesión, a propuesta de la Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios y por resolución de la Alcaldía, en la forma siguiente:

- ✓ El 50% al inicio de las obras de instalación del ascensor.
- ✓ El 50% restante, previa presentación de la certificación del fin de obra.

Artículo 9.- ENTRADA EN VIGOR

La presente Ordenanza no entrará en vigor hasta tanto no resulte aprobada con carácter definitivo mediante acuerdo plenario expreso, y se apruebe la dotación presupuestaria.